

MIGRAZIOA, ASILOA ETA BABESLEKUARI BURUZKO GLOSARIOA

Hezkuntza jardueretarako lagungarriak diren ohiko terminoen glosarioa;
Lehen Hezkuntzarako, Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako.



Aberrigabe

Herrialdeek pertsona bati herritartasuna ukatzen diotenean ematen den kasua. Giza Eskubideen Gutunak, pertsona orok herritartasunerako eskubidea duela esaten duen arren, egoera ezberdinak daude aberrigabetasun egoerak eragin ditzaketenak: esaterako, gerra zibilak, lurraldeen desagertzea, gobernuaren erabakiak, jazarriak diren gutxiengoak eta legerien arteko gatazkak. Jaiotzerakoan inskribatu gabeko haurrak ere aberrigabeak dira. Gaur egun milioika haur dira aberrigabetasun egoeran daudenak. Aberrigabeak kolektibo ahula



dira ez baitira haien eskubideak onartzen; hezkuntza eta osasuna, adibidez. Estatuak behartuta daude neurriak hartzea aberrigabetasun egoerak murrizteko.

Aberriratzte

Pertsona batek jatorrizko herrialdera itzultzeko duen eskubidea, nazioarteko eskubideak ezarritako baldintzak kontuan hartuta. Aberriratztearen sinonimo da borondatezko itzulera. Jatorrizko herrialdera itzultzea, norbanakoaren aukera bat da eta ez gobernuarena. Estatu batek pertsona bat bere borondatearen aurka haren jatorrizko herrialdera bidaltzen duenean, termino egokia deportatzea edo kanporatzea litzateke.

ACNUR

Nazio Batuen Erakundea da eta munduko pertsona errefuxiatu, lekualdatu, aberrigabe eta itzuliak laguntzen ditu. ACNURrek zuzendu eta koordinatzen ditu erakunde eta Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) desberdinen baterako ekintza, pertsona errefuxiatu eta aberrigabeen arazoak konpontzeko.

Asiloa

Estatu batek bere lurraldean gizabanako bati ematen dion babes, beste estatu baten jazarpenaren kontra. Asiloa, bi eskubideri lotzen zaio: lurralde batean sartzeko eskubideari eta lurralde horretatik nahitaez atera behar ez izateko eskubideari. Asiloak, babes iraunkorra eskaintzen du jazarpenaren kontra eta babesleku bako harago doa, izan ere, babeslekuak, babes iragankorra eskaintzen du eta.

Asilo-eskatzaile

Iheslarien estatusa aintzatetsi dadin eskatzen duena da asilo-eskatzailea, haren eskaera onartua edo ukatua ez dagoenean. Gerra eta hondamenek eragindako gizakien lekualdatzea masiboa denean, ezinezkoa gertatzen da asilo eskaerak aztertzea. Egoera horren aurrean, pertsona horiek prima facie iheslaritzat hartzen dira.

Asimilazioa/bereizkeria/integrazioa

Herrialde desberdinen arteko talde eta leku jakin bateko ohituren arteko elkarbizitzak nolakoa beharko lukeen ulertzeko modu ezberdinak dira. Asimilazioa da migratzaileak erabat egokitzen direnen haien bizilekuko usadioetara, hainbestera non tokiko biztanleekin nahasten diren. Bereizkeriak etnia, kultura eta erlijio ezberdinetako taldeak banatzen ditu eta beraz, nekez jartzen dira talde horiek harremanetan. Integrazioak irtenbide kulturantzunak eta kultura arteko irtenbideak proposatzen ditu; talde ezberdinen artean harremanetan jar daitezten, beren ohiturak mantenduz eta gainerakoekin tolerantak izanik.



Barruko lekualdatuak

Lekualdatuak dira bizilekua utzi eta beren lurraldean migratu behar dutenak, haien bizitza edo familiarena arriskuan jartzen duten egoeretatik ihes. Hondamendi naturalek eta gatazka armatuek milaka pertsonen migrazioa eragiten dute. Pertsona horiek, haien bizibideak galtzearen ondorioz, lekualdatuen esparruetara jo behar dute.



UN Photo/Eskinder Debebe

Bidalketa

Naziokoak ez direnek lortu edo irabazitako diru-kopurua jatorrizko herrialdeetara bidaltzea. Bidalketa horiek diru-sarrera garrantzitsuak dira komunitate behartsu askoren garapenerako.

Birkokatze

Iheslariak helburu zuten herrialdea ez den beste batera lekualdatzea, eta bertan epe luzerako egotea. Birkokatze prozesuaren urratsak dira, batetik, lekualdatuen aukeraketa eta bestetik, pertsona horien lekualdatze eraginkorra; iheslari esparruetara edo harrera elkarreentara.



Bisa

Estatu batek atzerritarrei, herrialdean sartzeko edo denbora batez egoteko aitortutako baimena da. Kasu batzuetan, estatuko herritar direnei baimena ematen die herrialdetik ateratzeko. Bisak pasaportea osatzen du. Herrialdeen artean zirkulazio askerako akordiorik ez dagoenean, (Europar Batasunean Schengen akordioari esker dagoena) beharrezkoa den dokumentua da. Bisa mota ezberdinak daude herrialde batean egonaldia eta egin daitezkeen jarduera motak zehazten dituztenak: lanerako, ikasteko, turismorako, prentsarako, diplomaziarako eta abarrerako bisak. Pertsona bat egoera irregular batean egongo da bere bisak baimendutakoa baino denbora gehiago geratuko balitz edo bisan ezarritako baldintzak beteko ez balitu.



CC BY-SA 3.0 Alvaro Molinas

Errefuxiatu (iheslari)

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmenaren arabera, pertsona iheslaria da: pertsona jazarria, bere herrialdea utzi eta babesa bilatuko duena beste herrialdeetan, ondorengo arrazoiak direla eta: gerra, politika, erlijio, herritartasun, arraza-arrazoiak edota ideia jakin batzuk eta talde sozial jakin batekoa izateagatik. Herrialde batzuek asiloa eta babeslekuen bidez babesten dituzte pertsona hauek, berauetan bizitzea ahalbidetuz.



CC BY-SA 3.0 Benjamin Gimmei

Errefuxiatu edo lekualdatuen zelaia

Giza kokaleku antolatua da eta jatorrizko Estatu edo ohiko bizilekutik nahitaez lekualdatu behar izan duten pertsonen multzoa taldekatzen du, aldi baterako. Zelaietan, errefuxiatu eta baztertuek nazioarteko laguntza humanitaria jasotzen dute (jakiak, babeslekua, zerbitzu medikua, psikologikoa eta haurrentzako hezkuntza). Harrera elkar-teak, iheslari esparruen beste aukera bat dira eta bertan, iheslariak eta baztertutak tokiko komunitatean integratzen dira agintarien babesarekin.

Gizakien salerosketa

Borondatez kontra esplotaziorako pertsonak hartzea, garraiatzea, lekualdatzea edo hartzea; mehatxua, iruzurra, indarkeria, nagusikeria eta bestelako indarkeria motak erabilia. Giza salerosketaren biktima direnak paperik gabe, mugariak zeharkatzera behartuak izan daitezke eta beraz, ezinezkoa zaie beren jatorrizko lurraldeetara itzultzea eta herrialde hartzailean legez lan egitea eta bizitzea. Gehiengoak esplotazio modu larriak pairatzen dituzte.

Familia bateratzea

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak jatorrizko herrialdeetan bizi ez diren haur eta nerabe guztiak aintzatesten ditu, egoera zeinahi dela. Familia bateratzeak senideen arteko batasuna ahalbidetzen du mugariak zeharka ditzaten eta jatorrizkoa ez den lurralde batean gera daitezen baimenduta.



© UNICEF



Herrialde hartzailea

Herrialde hartzailea da pertsona bati harrera ematen dion xede herrialdea edo hirugarren herrialdea.

Hondamen

Leku batek une jakin batean jasaten duen muturreko gertakaria, jatorri naturalekoa edo giza- eragina duena. Gertakari horrek, hondamendi prozesu bati hasiera eman diezaiokeen kalteak sor ditzake. Hondamendia gizarte-funtzionamenduaren asaldura larri bat da, giza galerak, galera materialak eta ingurumen-galerak eragiten dituena. Galera horiek gailentzen dute gizarte kaltetuak bere baliabideak erabilia, egoerari aurre egiteko duen ahalmena. Hondamendiek gizarte krisialdiak edo larrialdiak ekar ditzakete, eta horietan, bortxazko migrazio asko eta asko sortzen da.

Hondamen guztiek ez dute hondamendirik sortzen: hondamenen baitan dago hori, (naturala den edo gizakien eragina duen) baina batez ere, kaltetutako biztanleriak hondamenaren aurretik zuen egoera makalaren baitan dago.



Itzultzerik-eza (non-refoulement)

Nazioarteko arau honek eragozten du pertsona bat jatorrizko herrialdera itzultzea, non haren bizitza edo askatasuna arriskuan dauden.

Iragaitzako herrialdea(k)

Herrialde hartzaileko bidean, pertsona batek igarotzen dituen herrialdeak dira. Iragaitzako herrialdeetan pertsona baten bidaiak oztopatu dezaketen eragozpenak egon daitezke; sarreran, irteeran edota egonaldian bertan.

Itzultzea eta iheslari eta lekualdatuen birgizarteratzea

Jatorrizko lekuetara nahitaez itzultzea eta horietan egokitzea. Iheslari eta lekualdatuak hondamendien ondorioz kaltetutako lekuetara itzultzen direnean, birgizarteratzea ezinbestekoa da itzulera prozesurako. Kontuan hartu beharrezkoa da, jatorrizko lekuetan gertatutako hondamendiak epe luzekoak izan daitezkeela, eta bestalde, balitekeela ondasunak, familia loturak eta lotura sozialak galdu izana.



Jatorrizko herrialdea

Migratzaile, asilo-eskatzaile edo iheslarien sorterrria.



Laguntzarik gabeko adin txikikoak

Haur eta gazte nerabeak dira, bakarrik bidaiatzen dutenak beren herrialdeetatik kanpo edota beren familietatik urrun daudenak babesik gabe. Hondamendi eta gerren eraginez asko dira haien familietatik urrun dauden haurrak. Laguntzarik gabeko adin txikikoak bereziki kalteberak dira eta gizakien salerosketarako, esplotaziorako eta trafikorako erabiltzen dituzte iragaitzako eta xede herrialdeetan.



© UNICEF/Frederic Sautereau



Migratzaile

Jatorrizko herrialdea utzi eta beste herrialde edo eskualde batera jotzen duen pertsona, betirako edo aldi baterako. Pertsona hori **emigratzailea** litzateke jatorrizko herrialdean, eta herrialde hartzailean, aldiz, **immigrantea/etorkina**.

Migratzaile kualifikatuak:

jatorrizkoa ez den beste herrialde batera sartzeko tratu berezia jasotzen duten migratzaile langileak dira. Trataera bereizgarria emateko arrazoiak dira, gaitasun profesionalak eta zientzia, kirol eta arte-gaitasunak. Migrazio mota honek bi fenomenorekin lotura dauka: **aditu-ihesa** jatorrizko herrialdeetan eta **adituen irabaztea** herrialde hartzaileetan. Aditu-ihesa garapen-bidean dauden herrialdeetan ematen da maiz, baina herrialde aberatsetan ere ematen da. Fenomeno hori eskala handian gertatzen denean, arazoak ekar ditzake herrialdeen garapenerako. **Adituen ihesa** ezaguna eta erabilia ere bada honako terminoekin: **adimentsu-ihes** edo **migratzaile kualifikatu**.

Paperak dituen migratzailea:

Herrialde batean erregularitasunez sartzen da eta haren dokumentuek zehazten dute bere egonaldia (pasaporte, bisa, bizileku-baimen edo lan-baimenek).

Ekonomia-migratzaile:

Etxea utzi eta beste herrialde edo eskualde batean etorkizun eta bizitza hobia bilatzen duen pertsona.

Egoera irregularrean dagoen migratzailea:

Herrialde batean egoteko edo bertatik igarotzeko baimentzen duten dokumenturik gabe bidaiatzen duen pertsona. Egoera honen arrazoiak honakoak izan daitezke:

- Herrialde horretan sartzeko baimenik ez duelako.
- Baimendutako epea baino gehiago egoteagatik.
- Herrialdean egoteko pasaporte edo bisaren baldintzak urratu dituelako (adibidez, ikasle baten bisarekin lan egin duelako).

Sasoiko langilea:

urteko garai jakin batean eta sasoi-baldintzen arabera lana duen migratzailea. Horren adibide dira udazkenean mahats-bilketara Frantziara joaten diren espainiarrak.



CC BY 2.5 PRA

MIGRAZIOA

Giza talde bat herri batetik bestera joaten denean beste eskualde edo herrialde batean finkatzeko. Pertsona batek jatorrizko herrialdea uzten duenean **emigrazio** deritzogu eta **immigrazio**, aldiz, herrialde hartzailean pertsona edo talde bati sarrera ematerakoan.

Migrazio erraztua:

Gobernuek lagundutako migrazio ordenatua da; tramiteak bizkortuta eta oztopoak kenduta. Europan dagoen Schengen eremua da migrazio erraztuaren adibidea.

Derrigorrezko migrazioa:

Biztanleen mugimendua, orokorrean eskala handian eta ez-borondatezkoa. Hondamendi natural, klima- faktore, gatazka, edo talde jakin bat bere lurraldetik kanporatzeagatik gerta daiteke.

Migrazio irregularra: Herrialdeen arteko pertsonen mugimendua da gobernuek ezarritako prozeduretatik kanpo dagoena. Mugimendu hau gertatzen da herrialdeek baimendu gabeko sarreragatik, (borondatezkoa, behartutakoa) edo sarritan, bisak lurralde batean egoteko

baimentzen duen iraupena luzatzeagatik. Adibidez, pertsona bat egoera irregular batean dago, oporretara edo ikastera joango balitz eta herrialde hartan, bere bisak baimendutakoa baino denbora gehiago egongo balitz.

Lan-migrazioa:

Lanerako helburu batekin eskualde eta herrialdeen arteko pertsonen mugimendua da. Langile etorkin guztien eta haien familietako kideen babesari buruzko Nazioarteko Hitzarmenak arautzen du herrialdeen arteko lan-migrazioa.

Migrazio ordenatua:

Pertsonen mugimendua herrialde batetik bestera, legeria errespetatuta: jatorrizko herrialdetik irteera, iragaitzak herrialdeetarako bidaia eta hartzaile den herrialderako sarrera arautzen duena.



António Rocco - Os emigrantes

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea (OIM)

Gobernuen arteko erakundea da eta nazioarteko lankidetzaz sustatzeko lan egiten du ondorengo gaien inguruan: migrazio gaiak, migrazio arazoei konponbide praktikoak bilatzea eta giza laguntza eskaintzea.

Migraziorako faktore eragileak eta erakarpen faktoreak (push and pull)

Faktore eragileak (*push factors*) jatorrizko lurraldean dauden egoera eta gertakariak dira eta horiek bultzatuta migratzen dute biztanleek borondatez edo behartuta. Adibide horietako batzuk dira gatazkak, ingurumen-krisiak, langabezia, edo giza talde jakin batzuekiko bereizkeria.

Erakarpen faktoreak (*pull factors*) dira migratzaileak herrialde hartzaileara joatera motibatzen dituztenak; herrialde horietan, bizitza hobea izango dutela pentsatzen dute eta. Esaterako, badira zahartzaroan erretiratu ostean, klima epeleko leku batera joan nahi dutenak. Kasu horretan, klima litzateke beraz, erakarpen faktorea.

Mugarrietako kontrola

Sistema horren bitartez herrialdeek beren lurraldeetako pertsonen joan-etorriak kontrolatzen dituzte. Mugarrietako kontrola gobernuen araberakoa da eta publikoak (polizia, Guardia Zibil) zein pribatuak diren segurtasun gorputz ezberdinen partaidetza inplikatzeko du.



Naturalizazioa edo herritartzea

Estatu bateko herritar batek beste herrialde bateko herritartasuna hartzeko gertatzen den administrazio prozesua da.

Nazioarteko gutxieneko arauak

Estatuek nahitaez kontuan hartu behar dituzte oinarrizko arau batzuk, atzeritarren tratua ingurukoak. Arau horiek nazioarteko eskubideak ezartzen ditu eta derrigor bete beharrekoak dira. Estatu bateko ondorengo kasuetan urratuko litzuke nazioarteko eskubidea eta gutxieneko arauak: justizia ukapenean edota prozedura judizial eta auzitegiatarako atzerapen bidegabean eroriko balitz.

Nekazari-exodoa

Landa-eremutik hirietara lan aukera berrien bila gertatzen den migrazioa da. Orokorrean, herrialde baten barruan gertatzen da eta jende gaztea eta familiak dira mugimendu horren protagonistak. Industria Iraultzaren ondorioz XIX. mendean, landatik hirirako migrazioek bereziki gora egin zuten eta kasu batzuetan, landa-despopulazioa (herri hutsak) eta hiriko gainpopulazioa (lo-hiriak) ekarri zuten.



ICAS-SAHP, Fototeca Municipal de Sevilla. Archivo Serrano, 1961. ICAS-SAHP, Fototeca Municipal de Sevilla. Archivo Serrano, 1961.



OCHA (Giza Gaietarako Koordinazio Bulegoa)

NBERen erakundea da eta nazioarteko erantzunak koordinatzen ditu, hondamendiek edo gatazkek sortutako gizarte krisiei dagokienez. OCHAren zeregina garrantzitsua da, barruko lekualdatuen laguntzari eta babesari dagokien giza gaietan.



Pasaportea

Gobernu bakoitzak emandako dokumentua, herritar bati nortasuna eta herritartasuna aintzatesten zaio atzerrian. Dokumentu publikoa, pertsonala, gizabanakoarena eta besterenezina da. Pasaportea estatuarena da eta ez jabearena. Herritar guztiak dute pasaporte bat izateko eskubidea, pertsona jakin bati pasaporte kentzeko, lege arrazoi edo arrazoi judizialak daudenean izan ezik. (adibidez, epaiketaren zain dagoen norbait). Pasaporte guztiak askatasunez bidaiatzeari dagokionez, ez dituzte aukera berdinak eskaintzen. Batzuek, hainbat herrialdeetara joateko aukera ematen dute bisaren beharrik gabe; beste batzuek, ordea, herrialde gutxi batzuetara joateko baimena besterik ez dute ematen.

Pertsonen trafikoa

Herrialde batean ilegalki sartzea estatuko edo egoiliar ez diren pertsonak. Salerosleek etekin ekonomiko eta materialak lortzea dute helburu.



Xenofobia

Atzerritarrekiko gutxiespena, gorrotoa edo etsaikeria. Beste lurraldeetako pertsona eta kulturekiko bereizkeria, mespretxua eta aurreiritziak dira jarrera horren isla. Xenofobiak lotura dauka arrazakeriarekin.



Zirkulazio/mugimendu askatasuna

Giza Eskubideen Gutunak aintzatesten du gizabanakoek haien herrialdean modu askean mugitzeko duten eskubidea, baita bertatik ateratzeko eta nahi dutenean bueltatzeko duten eskubidea ere. Hala ere, ez du gizabanakoek haien herrialdea ez den beste batean sartzeko duten eskubidea kontuan hartzen.

Xede herrialdea zein den kontuan hartuta, indarrean dagoen nortasun-agiri bat behar dugu; bidaia egiteko arrazoia zein den adierazi (turismoa, ikasketak, lana, prentsa, gorputz diplomatikoa, eta abar), baita herrialde horretako agintariek baimendutako egonaldiaren epemuga errespetatu ere.

Kasu batzuetan, agintariek pasaporte baimena ukatzen diete tokiko herritarrei (erbesteratuak izandakoei edota legearekin arazoak izan dituztenei). Gainera, gobernu batzuek herrialde



Argitalpena
UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argitaratuta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



cooperación
española

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.